

# Arrasate

PRESSA

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko irailaren 20a / 598. zenbakia



## ERRUSIAKO UMEA

**JOSE LUIS RODRIGUEZ**

gerra garaian, mutikotan,  
Errusiara bidali zuten.  
Hogei urte igaro zituen han.

ORAIN ETA HEMEN: ASKATASUN TAUPADAK/7 • KIROLA: MONDRA FUTBOL TALDEAREN AURKEZPENA/12

AZALA: ALEX AZKARATE

ORAINGO ASTEAN: ARRASATEKO GREMIOEN GIDA/2

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,  
ateak, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA  
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baseria) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83  
Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza



*Izcue Irurzun*

Igeltsaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

**TRANZABAL**  
KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak  
Zerkaosteta, 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)  
Tel.: 943 79 17 53



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminoa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 11 35



**ARRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak  
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**  
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

**AIDE GAS S.L.**

Loramendi 8, Aretxabaleta.  
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gas • Berogailuak  
Bainuak • Iturgintza**

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta  
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren  
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak  
• Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**  
Tel./Fax: 943 79 76 03

## Margoak

**APAIN**  
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1  
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

**Jovi**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**  
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 telefonora

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

# KALENKESTA/ Hasi zara Maritxu Kajoi jaixe preparetan?



**JON UGARTE**  
Ikasle

**PILAR DÍAZ**  
Langillie

**NAGORE BORREGO**  
Ikasle

**JOSUNE MURGOITIO**  
Ikasle

**FAUSTINO OLEA**  
Langillie

**AITOR PASTOR**  
Langillie

Dagueneko badauket trajie. Eta kuadrillakuok ondian ez gare hasi bazkaietako leku billa. Dana dala, mutilok neskek bai errexago daukegu, jan eta lista!

Dana gertu daukogu hillebete hasieratik: jenerue ekarri, eskaparatie preparau eta telak atara. Neuk be dana dauket gertu, baita afarixe be; hori denporakin preparau biher da.

Gu ondiokan ez gare hasi. Guk azkenera arte ez dogu egitten ezer be ez, ez trajie ez ezer. Badakigu afarixe egin biher dogule, baiñe ondiokan ez dakigu nox. Gu nahiko lasai gabitz.

Ez naz hasi, azkenengo astien egingo dogu dana, eta nahikue da. Uste dot jentie apur bat exageraue dala. Hori bai, afaitteko-eta gero ez dago lekuri, baiñe egin dogu zerbait.

Ez naz hasi. Egixe esan, ez dauket zelebretako ohitturarik. Neuri gehixago gusetan jat jentie jantzite zela doien ikustie. Gaiñera, berandura arte lan egin biher dot, hortan,...

Juen dan urtetik dauket jantzixe, eta neska-lagunek barrixe erosi dau. Ondiokan ez dogu hartu lekuri afaitteko; topauko dogu elkarteren bat-edo, hori da onena eta merkiena.

## TALOKETATXISTUAK



**TALOKETATXISTUAK PILENDAKO EDUKIONTZIAK** Herritar askok jakinarazi digute beiraren, paperaren eta bestelako edukiontzien alboan pilendako edukiontzia falta direla. Iraganean, pilak horien alboan botatzen ziren, eta orain, askok eta askok ez dakite pilekin zer egin. Entzun nute Eroskin edo Udaletxean edukiontzia daudela, baina kalean, beste edukiontzien ondoan, gura dituztela salatu dute.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8	KULTURA /13	KIROLA /10
<b>Egitamu Orokorra</b>	<b>Goikobaluren deialdia</b>	<b>Zikloturista martxa</b>
Egitamu Orokorri egindako alegazio berriak aztertu eta gero, egingo diren aldatetak.	Goikobalua abesbatzak deialdia egin die arrasatearrei taldean parte hartzeko.	Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak martxa antolatu du domekarako.

## ASTEKO DATUA

# 25

### URTE EGIN DITU ARRASATEKO ZIKLOTURISTA TALDEAK

Arrasateko Debagoiena Zikloturista taldeak hogeita bost urte egingo ditu aurrean. Horrekin lotuta, martxa izango da etzi, domekan, eta Jose Mari Saiz IV. memoriale ere egingo dute.

## BESTEKE SANA

“Aspalditxi nuen atzerriko herrialderen bat eta bere kultura bertatik bertara ezagutzeko eta bizitzeko gogoia; atzerriko lana eskaintzen zuten enpresetan curriculumak botatzen hasi nintzen. Fagor Electrodomésticos enpresatik deitu zidaten eta Txinako proiektua martxan jartzea proposatu zidaten (...) Lantegi horrek lehen gure hornitzaile gisa egiten zuen lan, baina ondoren presioko lapikoak Txinan egiteko asmoari ekin genion. Planta handitu, makina berriak erosi, produktua finkatu eta ekoizpena hasi dugu. (...) Txinan pasarte bitxiak izan ditut. Behin baino gehiagotan, agian ni bezalakoak telebistan bakarrik ikusi dituztelako, kalean gelditzen naute, nirekin argazki bat ateratzeko”

**AINHUA ESKUDERO**  
‘T.U. Lankide’/02-07-20

## HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



### Independentzia oihuetatik, 114ko egunetara

**Irailak 14, lotsa, amorrua eta duintasuna:** Gudari minduaren lotsa eta amorrua. Gure alboan agure abertzalea, gudari bat, 36koa bizitakoa. Jeltzalea, arnasak bihotza taupadaka mantenduko dion bitartean. Bere alderdiko buruez lotsaturik, bere ertzaintza Garzonen lan zikina egiten ikusirik, euskaldunak euskaldunen aurka ikusirik. “PNV español” garrasiak zabaldu ziren Zabalburun, agureari sanak zabaldu zitzaizkion. **HORI EZ! Inoiz EZ!** Zioen. Ni PNVkoa naiz eta hemen nago, ordea. Amorrua, hainbeste urtetan ikurrinaren atzean borrokatu ondoren, ertzaintzak manifestari bati ikurrina eskutik kendu, lurrera bota eta zapaltzen ikusteak gizonari eman ziona. Balza jaunak ez luke era hoberik aurkituko bere alderdiko gudari historiko hau mintzeko.

**Amorrua duintasunak gainditurik:** Amorrua, euskaldunontzat sortutako polizia, adierazpen askatasunaren eta

bere herriaren aurka, indarkeria erabiliz ikusteak ematen duena. Eskerrak antolatzaileek herritarrek baretu eta benetako sarraskia izan zitekeena saihestu zutena. Balzak pertsonalki argi utzi zuten: “No pasará nadie bajo ningun concepto”, Espainolez, noski. Laster Garzonek aginduz gero, euskaltegiak, euskara elkarteak, euskal dantza taldeak, trikitilari eskolak eta bertsozale elkarteak ixtera bidaliko du ertzaintza. Duintasuna, herriak eraso horren aurrean tinko, eta era bake-tsuan bere eskubideak defendatzen erakutsi zuena. Oso gutxi izan baitziren ertzaintzaren erasoen aurrean, medio guztiek hori bakarrik aipatu duten arren.

**Eskaria:** Balza utzi ezazu zure poltrona, arren. 1936ko gudari jeltzalearen oroimenez bada ere egin beharko zenuke, ez duzu egingo. Berriz ikusiko zaitugu koldarturik, zure alderdiko gudariak lotsatzen.

**“Balza, berriz ikusiko zaitugu koldarturik, zure alderdiko gudariak lotsatzen”**

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 20**  
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30

**ZAPATUA, 21**  
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

**DOMEKA 22**  
Español, Araba etorb..... 943 79 18 65

**ASTELEHENA, 23**  
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15

**MARTITZENA, 24**  
Azkoaga, Iturriotz..... 943 79 79 99

**EGUAZTENA, 25**  
Corcuera, Aranbarri 1..... 943 79 22 26

**EGUENA, 26**  
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00  
Igalatorioa..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak..... 943 79 39 00  
Emakumeak..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak..... 112  
Gurutze Gorria..... 943 76 55 78  
DYA..... 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua..... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44

**ERTZAINZA**  
Arrasate..... 943 79 71 99

**SUHILTZAILAK**  
Udal taldea..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62  
Gasa..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak..... 943 79 12 22  
PESA..... 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza..... 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**TXERTATZE KANPAINA**  
Joan den astetik urriaren 31ra arte, gripearan aurka-ko txertoak emango dituzte ambulatorioan eta herriko zenbait auzotan.

**'ASKATASUN TAUPADAK'**  
Bihar eta etzi, *Askatasun Taupadak* jaia egingo dute Arrasaten. Herriko hainbat gunetan banatuta, ekitaldi mordoia izango dira.

**AUTO BAKO EGUNAK**  
Mugikortasun jasangarriaren aldeko astearekin jarraituz, gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka, Garibai etorbidean oinezko-entzako gune bat sortuko dute. Gaur, 17:00etan, umeendako hainbat ekintza izango dira, eta bonu bat aurkeztuz gero, herri autobusean bidaiari bat doan egiteko aukera izango da. Eta domekan, Herriko Autorik Gabeko Eguna ospatuko dute.

**JESUSI E. MUSIKA ESKOLA**  
Jesusi Etxeberrria Musika Eskolak ikasturte berrirako matrikulazioa zabaldu du. Solfeo, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua, gitarra eta baxua ikas ditzakezu, besteak beste. Interesatuok Iturriotz kaleko 32.era jo edo telefono hauetako batera deitu: 943 79 17 67 edo 652 71 38 28.

**AEDren AGENDA**

**ZAHARBERRIREN DEIA**  
Dagoeneko zabaldu du izena emateko epea Zaharberrik. Euskaldun berriek euskara praktikatzeko eta euskaldun zaharrek besteei laguntzeko aukera polita.

**ZAHARBERRIRAKO ERAGILEA**  
Zaharberri lan egiteko eragilea behar dute. Bidali curriculum, lehenik eta behin, AEDra.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAIN DELA 10URTEARRASATEN**


**Besaide Eguna ospatu zuten mendizaleek**

Urtero moduan, Euskal Herriko mendizale ugariaren topaleku bihurtu zen Besaide. Ekintza egitarau ederra prestatu zuten Besaide Mendizale Taldeko ardura-dunek. 10:30ean, txalaparta entzuteko aukera izan zuten, meza izan zuten ondoren, eta, eguna bukatzeko, dantza saioa.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Istantza"**



Iluntzean ia ilundurik dagoeneko tarte hori. Egunaren eta gauaren arteko muga. Ilunabarra.  
-Atzo istantzian uso bandara galantak pasau zaien.  
-Istantzerarte ibilli lanian da, artu otarra, ta etxera aguro, laga afaixai tta.

GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Egubakoitza, 13 **8 °C**

**MAXIMOA**  
Astelehena, 16 **29 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)**  
**0,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	24 °C	12 °C	- l/m²
Eguena, 12	24 °C	10 °C	- l/m²
Egubakoitza, 13	24 °C	8 °C	- l/m²
Zapatua, 14	29 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 15	28 °C	13 °C	- l/m²
Astelehena, 16	29 °C	14 °C	0,4 l/m²
Martitzena, 17	28 °C	14 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Iñaki Agiriano Nikaragutatik bueltan**

Iñaki Agiriano mediku arrasatearra Nikaraguan izan zen udan, eta bueltan, han bizi izandako esperientziak kontatuko dizkigu. Mediki legez ibili da lanean. Osasunaren esparruan zein behar dagoen kontatuko digu astelehenean, 10:00etan.  
Eguenean eta egubakoitzean, Garagartzako, Oñatiko eta Aretxabaletako San Migel jaiak izango ditugu hizpide. Jai horiek zer egitarau dakarten kontatuko dizuegu, eta jaietako protagonistekin egingo dugu berba.



**Udako denboraldia bukatzeaz, 'Lentejazko Izoziak' saioak agur esango digu**

Astebete barru, Arrasate Irratiak bukaera emango dio udako programazioari. Irailaren 30etik aurrera, udazken-neguko saioei helduko diegu. Betiko moduan, goizeko bederatzietan hasiko dira Arrasate Irratiko emanaldiak eta eguerdira arte iraungo dute. Musika, jakina, lagun izango da egun osoan.  
Hori horrela, *Lentejazko Izoziak* saioak ere agur esango digu datorren astean. Uztailaz geroztik, Deiane Arrieta,

Mikel Aranburu eta Jon Plazaola izan dira 107.7ko uhinetan, eta datorren astean, saioari amaiera emango diote. Elkarrikerketak, kale inkestak, musika eta umorea eskaini digute *Lentejazko Izoziak* saio-ko arduradunek, eta egunero-egunero entzuleen eskariei erantzun diete. Internetez mezu asko jaso ditu hirukote horrek, halako edo bestelako musika eskatzeko. Datorren astean jakinaraziko dizkizuegu denboraldi berriko aldaketak.

## ASTEABIHITZETAN

### Udal Haur Eskola

Oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du 0 eta 3 urte bitarteko Udal Haur Eskolari kontratua beste urtebetez luzatzea; hain zuzen ere, 2002ko urriaren 1etik 2003ko irailaren 30era arte.

2000. urtean, Udalak erabaki zuen Umezaintza Kooperatibari esleitzea sortu berri zuten Udal Haur Eskolaren kudeaketa, eta orain, beste urtebetez luzatu dute. Herritarrei ahalik eta eskaintzarik osoena emateko asmoz sortu zuten Udal Haur Eskola.

### Laguntza teknikoa dendariendako

Debagoieneko dendariendako ikastaroa antolatu du Laguntza Teknikorako Kabineteak. Ikastaroaren helburua merkatarien beharrak asetzea da. Adibidez, jakiak esku artean ibiltzeko txartela ateratzeko edo berritzeko ikastaroa egin gura dute.

Horrekin batera, kabineteak beste ohar bat ere helarazi gura die merkatariei: indarrean dagoen legediaren arabera, dendetan bi urte baino gehiago dituzten balantza guztiak bi urtean behin egiaztatu behar dira. Horrela, kabineteak telefono zenbaki bat ipini du dendariak hara deitzeko, balantzak egiaztatzeko: 94 4892520.

### Jende asko Besaiden

Eguraldia lagun, Euskal Herriko makina bat mendizale Besaidera etorri ziren Oroimen Eguna ospatzera. Urtero moduan, mendian hildako mendizale guztiak izan zituzten gogoan.

Aurten, zorionez, bestetan baino izen gutxiago irakurri behar izan zituzten, mendian ezbehar gutxiago izan den seimale. Hori bai, urtero moduan, Besaiden elkartu zirenen arteko giroa ezin hobea izan zen.



### Arantzazuko erromesaldian jende asko

Beste behin, Arrasateko herritarrek ez zuten kalerik egin urteroko erromesaldian. Giroa ere ezin hobea izan zen. Gutxi gorabehera, 150 lagun animatu ziren Bedoñatik bueltan Arantzazuraino oinez joaten. Jose Maria Astigarra-ga parrokoa agurtzeko aukera ere izan zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Ekitaldi erraldoia, herrian

Astean gertatutakoari erreparatuz, zapatuan Bilbon egindako kale agerraldian jazotako gertaera tamalgarriak gogora etorri zaizkit, baina beste batzuk arituko dira horretaz.

Ni beste gai batzuek arituko naiz, alaiagoak diren beste gai batzuek. Bihar eta etzi oso ekitaldi bereziak egingo dituzte Arrasaten bertan. *Askatasun Taupadak*


izenburuean, euskal errepresaliatuen aldeko jaialdi erraldoia antolatu dute. Aldarrikapenaz gain, bertso-lariak, musika emanaldiak, herri bazkaria, antzerkia eta kontzertu mordoia izango dira, besteak beste. Antolatzaileren ustez, herrira milaka lagun etorriko dira, eta, aspaldiko partez, Arrasaten izango da zer ikusi eta zer entzun. Domeka, esatera-

ko, egun handia izango da eta goizetik iluntzera arte ez da aspertzeko aukerarik izango.

Iraganean bai, Arrasatek alor askotan maila handia zeukan, eta, oraindik guztia galdu ez badu ere, aspaldian ez da hainbeste nabaritu. Iraganean halako ekintza bat Arrasaten egiteak ez luke inor harrituko.

Egun, ordea, apur bat *erlaxatu* egin garela dirudi. Horra hor, esaterako, Goikobalu moduko *erakunde* bat jende faltan.

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### KARPA ERRALDOIA, ASTEBURUAN IZANGO DEN OSPAKIZUNARI 'AURRE EGITEKO' IA PREST

Asteburuan, Askatasun Taupadak jai ospatuko da Arrasaten. Guztira, hiru gune izango dira: Iturripen *Aske nahi dugu* gunea izango da, Monterronen *Asko gara* gunea eta Garagartzara bidean, Markuletan, *Aski da* gunea jarri dute. Azken gune horretan sekulako karpa egongo da, eta astean barrena


gazte arrasatear mordoia ibili da karpa jartzeko lanean. Karpa horretan kontzertuak izango dira bai zapatuan baita domekan ere. Karpa jartzeko ia aste osoa behar izan dute, eta lanean izan direnek esan digute ez dela izan txantxetako kontua. Dena jasotzea ere ez da txantxetako kontua izango.



**ALDEDI**  
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**PUB HAIZEA**



**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

**GIZARTEA/** Jose Luis Rodríguez bizkaitarra, beste 1.700 umerekin batera, Errusiara joan zen, itsasontzian, 1937an

# Jose Luis Rodríguez, 1937an Errusiara itsasontzian jo zuen 'gerrako umea'

IKER BARANDIARAN

**J**ose Luis Rodríguez Abanto-Zierbenan jaio zen, 1924ko irailean. 1937an, frankistek Bilbo hartu aurretik, bi arreba txikiekin eta ahaide batzuekin Errusiarako bidea hartu zuen. 1956an Euskal Herrira bueltatu artean, Errusian bizipen asko izan zituen.

**Zelan gogoratzen duzu itsasontzia hartu zenueneko eguna?**

Aitak AHVn lan egiten zuen eta CNTkoa zen, eta anaia 16 urterekin gerrara boluntario joan zen. Bilbo erortzean zegoen eta gurasoek gu atzerrira bidaltzea erabaki zuten. 1937ko ekainaren 14a zen, eta ni pozik nengoen, leku berriak ezagutzera nindoalako. Gogoan daukat aitak esan zidana, alegia, errusiar bilakatuta bueltatuko nintzela. Aitak Errusia miresten zuen. Ez nituen gurasoak berriro ikusi.

**Zelakoa izan zen Errusiarako bidaiak?**

Santurtzitik Frantziaraino *La Habana* izeneko itsasontzian joan ginen. Frantziara joan behar genuen, baina Euskal gobernua Errusiara bidaltzea erabaki zuen. Santurtzitik gertu, frankisten itsasontzi batekin topo egin genuen, baina atzera egin zuen. Frantzian hainbat ume utzi zituzten, eta gainerakook, 1.700 bat, *Sontay* izeneko itsasontzian sartu gintuzten. Tripulazio txinatarra zeukan eta gu sotoetan sartu gintuzten. Bidaian hamar egun eman genituen, eta gogorra izan zen: erdi zorabiatuta, umeltasun handiarekin...

**Eta Errusian zer-nolako harrera izan zenuten?**


Oso hunkigarria izan zen. Eskoletatik eta etxeetatik jende mordoa joan zen Estalingradera guri harrera egitera. Gaixoak ospitaletara eraman zituzten eta gainerakook garbitu, arropa berria eman eta bazkaltzera eraman gintuzten. Oso jaki goxoak ziren, baina guk kabierra eta antzekoak ez genituen ezagutzen, eta ia ez genuen ezer jan.

**Eta, horren ondoren, etxetara eraman zintuztetan?**

Bai, taldeetan banatu gintuzten eta, gura barik, nire arrebangandik banatu ninduten. Neu Moskura, Espainiako Umeen Omnisco eskolara, eraman ninduten eta arreba Odesako Kirova eskolara. Ikasturte bukaera arte banatuta egon ginen. Gero, Kirovan elkartu ginen.

**Zelakoa zen etxe haietako egunerokotasuna?**

Goizetan, kirola egiten genuen. Gero, gosalduta eta eskolak jasotzen genituen. Errusiar hizkuntza izan ezik, beste eskola guztiak gaztelaniaz ematen ziz-



Irudian, Jose Luis eta bere biloba Errusiara egindako bidai batean. Bere sendiak ere Errusia asko maite du.

*"Itsasontzia Estalingradera heldu zenean, jende mordoa etorri zen harrera egitera"*

kiguten. Horrez gain, lantegi mordoa izaten genituen: sukaldaritza, elektrizitatea, argazkigintza...

**Kirova eskolan luzaro egon zinen?**

Hiru urte. 1941. urtean, inor ohartarazi barik, naziak Errusia

*"Naziak erasotik ihesi guran, neguko hilabete oso bat igaro genuen tren baten bidaiatzen"*

indarrez hartzen hasi ziren eta bonbardaketak Odesaraino heldu ziren. Errusiarrak frontera bidali zituzten, eta Kirovako umeok Jersongo etxera eraman gintuzten. Naziak aurrera zihoazen neurrian, gu ere mugitu gintuzten.

*"Bonbardaketak ikustean, armak lapurtu eta gerran sartzeko gogoa piztu zitzaigun"*

Batzuk Txetxenia aldera bidali zituzten, eta nire taldea Saratoverantz zihoan tren baten sartu zuten. Ni gaixo nengoen eta ospitale-bagoian joan nintzen. Oso negu hotza egin zuen eta, gerra zela-eta, bidean hilabete egin

genuen. Trenbidetik zebilen zibilen tren bakarra gurea zen, eta oztopo handiak izan genituen. Bidean bonbardaketekin topo egin genuen, ozta-ozta ibili ginen. Gose eta egarri itzela igaro genuen, gerraren ondorioz errazionamendua zegoelako; eta ume asko gaixotu egin ziren.

**Saratovera heldu bezain laster, dena zeharo aldatu zen?**

Ez, igartzen zen naziak gerran geundela, baina gu frontetik urrun geunden. Nagusienok Lanbide Eskolara bidali gintuzten, eta arratsaldeetan, fabrikara joaten nintzen hegazkinen fuselajea egitera. Lanbide Eskolan bosgarren mailako ofizial kategorian eskuratu nuen. Neguan, berrogeita hamar gradu zero azpitik egin zuen. Behin, Lanbide Eskolatik fabrikara, tranbian, ate ondoan nindoala, belarria izoztu egin zitzaidan.

**Georgian beste hegazkin fabrika baten lan egin zenuen...**

Bai, Saratovetik Georgiako hiribururaino, Tiflis-eraino, itsasontzian eraman gintuzten. Volga ibaitik gindoazela, minak aurkitu genituen eta ia ezkutuan joan behar izan genuen, badaezpada. Txetxeniako portu baten, maleta, dokumentazioa eta neukan guztia lapurtu zidaten. Gero, Tiflisen, hiru urtez, Hegazkinen 31. fabrikari doitu lana egiten ibili nintzen. 1945ean, gerra bukatu zenean, planta osoko langileok Moskura bidali gintuzten. Han ere hegazkin fabrika baten ibili nintzen, elektrikari lana egiten.

**Emaztea ere hantxe aurkitu zenuen...**

Bai. 1950ean, lantoki berean lan egiten zuen Tamara Molodzova ezagutu eta ezkondu egin ginen. Alaba bat izan genuen, eta 1956an Bilbora joan ginen. Urte batez Gurutze Gorriaren etxe baten bizi izan ginen; gero, Durangon, eta azkenean, 1960. urtean, Arrasatera etorri nintzen, Nito enpresan elektrikari lana egitera. 1982an erretiratu nintzen, baina tarteka itzultzaile lanak egin ditut. Luzaroan, bi urtean behin Errusiara bisitan joan izan naiz.

## Errusia bihotzean daraman 'mutiko ausarta'

Jose Luisek, gerran Errusiara jo zuten beste ume askok bezala, Errusia bihotzean darama. Ezin du ahaztu hara heltzean egin zieten harrera eta eman zieten guztia. Handik etorri zenetik 1999. urtera arte bi urtean behin jo du Errusia bisitatzen. Orain, ordea, emazteak, Tamarak, ez du hara bueltatu gura, egoera ez delako ona Errusian.

"Errusia asko aldatu da. Aspaldian nahaste-borraste handia dago, baita

mafia ugari ere. Pena da. Komunismoa, ordea, ondo egon zen, akatsak izan zituen arren. Horrez gain, gerora, Stalinekin gehiegikeria izugarriak egin zituen, onartu ezin daitezkeenak".

"Errusiatik hona etorri ginenean, Espainiako Estatua oso egoera txarrean zegoen, eta Errusia ondo. Orain, alderantziz da".

Dena dela, Jose Luisek II. Mundu Gerran sekulakoak bizi izan zituen: gosea, hotza, bonbardaketak, ihesa...

Jose Luisek ondo daki halako egoeratan bizirauten. Horra hor, esaterako, janari gehiago lortzearen izoztu eta gaixotu izana, trenean zihoazela militarrei janaria lapurtu izana, umeak zirela naziei aurka egiteko asmoz armak hartzea, naziek gerra galdu zutenean ospatzeko mozkortu eta polizia atxilotu izana, bielorrusiarrei tabakoen truke sardinak aldatzea... Bizipen ugari, eta horiek guztiak idazteko leku gutxi.

ELKARRIZKETA

TOMAS KARRERA/ASKATASUN TAUPADAK

*“Euskal Herriko gehienok konponbide demokratikoaren alde gaude”*

UBANE MADERA

Asteburu mamitsua izango da oraingoa Arrasaten. Askatasun Taupadak izenarekin, hiru gunetan kontzertuak, berbaldiak, kirolak, dantzak... izango dira. Guztia, besteak beste, azken 25 urteotako errepresaliatuak gogoratzeke:

**Zer topatuko du Arrasatera datorrenak?**

Ekitaldi bi izango dira: zapa-tuan, kontzertua, errepresaliatuen aldekoa, eta domekan, Kilometro-en edo Herri Urratsen antzerako zerbitu antolatua gura izan dugu. Elkartasun jaia izango litzateke. Aurten, 25 urte beteko ditu amnistiararen aldeko mugimenduak, edo errepresaliatuekiko elkartasuna erakusten duten elkarteak (Ihes-lariak, A.A.B.B. izandakoak, Etxerat, T.A.T...) sortu zirela; eta bestelako elkartasun motek ere jai horretan ospatu izatea gura dugu. Adibidez, azken urteotan sindikatuek egindako lana oso garrantzitsua izan da. Artzain Oneko gose grebak, Iba-etako ekimenak, Batera...

**Hori da helburua?**

Bai. Baina, horrez gain, pentsatzen dugu azken 25 urteotan euskal gatazkarekiko jarrera bi izan direla: errepresio hutsa, batetik, guretako balio ez duen irtenbidea, nahiz eta orain arrakasta izan; eta, beste aldetik, konponbide demokratikoaren aldekoa; ueste dugu Euskal Herriko gehienok defendatzen dutela, elkarrizketan oinarritutako irtenbidea eta eskubide guztiak onartuak eta errespetatuak izan daitezela. Nazioarteko esperientzia askotan bide hori jorratu dute edo ahalegindu dira. Bidea ez da gaur egun Espai-



UBANE MADERA

niako eta Frantziako estatuek bultzatzen dutena, baizik eta beste bat. Beharrezkoa da konpromiso bat beste norabide baten lan egiteko. Eta helburu ekonomikoa ere bada: sakabanaketak eraginda, arlo juridikoan ere gastu asko daude...

**Antolaketa?**

Jende asko ibili da. Ideia Arrasateko senide batzuen artean sortu zen; orain dela urte eta erdi, Seni-

deen barruan berba egin zen, eta poliki-poliki elkarte guztietan zabaldu dugu. Mila lagun inguruk parte hartu dute.

**Zerbait gehiago esateko...**

Bada, herritarrei barkamena eskatzea, oraingo domekan hainbat kale itxi egingo ditugu-eta, eta eragozpenak sortu. Eta eskatuko nieke herritarrei autoa ahalik eta gutxien erabiltzea.

**Hil bukaeran hasiko dira zubi zaharra botatzen**

UBANE MADERA

Irailaren bukaera aldera zubi zaharra bota (autobus geralekuaren parekoa) eta berria eraikitzen hasiko dira Eroski hipermerkatuaren parean. Horren ondorioz, autoen joan-etorria desbideratuko dute.

Aurretik zehaztutako epeak ari dira betetzen Zabaleta inguruko lanetan. Oraingo astean, zubi berria margotzen ibili dira; ondorioz, Arrasateko noranzkoko ibilgailuak desbideratu egin behar izan dituzte. Hori bukatutakoan, zubi zaharraren azpian dauden Euskaltelen eta Telefonicaren hariak eta ur eta argiteria zerbitzuak zubi berriaren azpiko alde-ara pasatzen aritu dira.

Eta, behin hori guztia eginda, zubi zaharra bota eta berria eraikitzen hasteko asmoa dute. Irailaren bukaera aldera izango da hori, aurreikusitako dutenez. Eta, hori ere egiten dutenean, errepide horretako bi erraietako autoen joan-etorria epe luzerako desbideratu beharko dute; hain zuzen ere, oraingo astean ireki duten zubi berritik pasatuko dira

Arrasateetik sartzeko/irteten diren ibilgailu guztiak.

Horrez guztiaz gain, kolektorea sartzeko ere segituko dute Eroski hipermerkatuaren parean, ubideak egiteko lanetan, hain justu ere.

**LAU ERREI**

Udaleko Hirigintza Sailetik adierazi digutenez, lan guztiak bukatu eta gero, Zabaletako errepide berriak lau errai izango ditu. Oraingoa baino zabalagoa izango da, hortaz. Kontua da, aurrera begira, hor inguruan batuko direla Beasain-Durango autobidea eta Maltzaga-Urbina autobidea, besteak beste.

**OINEZKOENDAKO**


Inguru hura ibilgailuendako egokitzeaz gain, oinezkoendako ere egokituko dute. Horren adibide da maiatzean errepidearen gaineko zubia bota zutela. Haren ordez, errepidearen paretik doan pasabidea egiteko asmoa dute, oinezkoen bidea errazteko.

Miloi bat euro pasatxoko inbertsioa egin beharko dute lanetan, Udalaren, Jaurilaritzaren eta Diputazioaren artean.



UBANE MADERA

Oraingo astean errei bat itxi dute eta autoak zubi berritik desbideratu dituzte.



**Beilatokia inauguratu dute**

Arrasateko Udaleko ordezkariak, zenbait ehorztetxeetako ordezkariak eta San Felipe Apostol kofradiako ordezkariak izan ziren beilatokia inauguratzen astelehenean. Laster, urritik aurrera, erabili ahal izango da udal zerbitzu berria. Hogeita mila euro pasatxo inbertitu ditu Udalak beilatokian. Gorpuak gordezko gela bi ditu, bakoitza tumulu batekin; eta beste gela bat hildakoaren sendia eta lagunak hartu ahal izateko. Ibarreko aurreneko udal beilatokia da. /U. M.

**LABUR**

**Lan-eskaintza Arrasateko Udalerako**

Hamalau lanpostu betetzeko dei egin du Arrasateko Udalak: bide, ubide eta portueta-rako ingeniaria; arkitekto teknikoa; lan-arriskuen prebentzio teknikaria; gizarte laguntzailea; informatika laguntzailea eta bederatzi udaltzain. Lanpostu guztiak finkoak izango dira, funtzionario bezala lan egiteko. Izena emateko epea urriaren erdialde inguruan zabalduko dute, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatu eta gero.



Eztabaida politikoa nagusitu zen martitzeneko osoko bilkura berezian.

UBANE MADERA

HIRIGINTZA/Egitamu Orokorrari egindako alegazioen eta emendakinen eztabaida

## Egitamu Orokorra berriro ere egokitu beharko dute

UBANE MADERA

**Herritarrek aurkeztutako 75 alegazio eta alderdi politikoek aurkeztutako 34 emendakin eztabaidatu zituen martitzeneko udalbatzarra. Guztiak Egitamu Orokorrari egindakoak dira. Horien ondorioz, orain, beste txosten bat egin beharko du Hirigintza Sailak.**

Minutu bateko isilunearekin ekin zen martitzeneko batzarra. Paco García sozialistak eskatuta, abuztuko atentatuak gaitzesteko. Horren ondoren, gai zerrendari eutsi zioten. Bi gai zituzten aurrez ikusita: aurrenekoan, Euskal Herritarrok udal taldeak jakinarazi zuen taldearen izena aldatu eta orain Arrasateko Sozialista Abertzaleak (ASA) izena hartu duela; bigarrenean, berriz, Egitamu Orokorrari aurkeztutako alegazioak eta emendakinek aztertu behar zituzten zinegotziek; eta horrek luze jo zuen: hiru bat orduz jardun zuten.

### EZTABAIDA POLITIKOA

Hiru ordu horietan eztabaida politikoa izan zen nagusi. Izan ere, alderdiek aurkeztutako alegazioak banan-banan erantzun zituzten. EAJk aurkeztu zituen alegazio gehien, 23, guztira. Juan Ramon Garaik, berriz, independente moduan, beste zortzi aurkeztu

zituen; eta Ezker Batuak, berriz, hiru. ASAk eta EAK, batera, bakarra aurkeztu zuten. Bestalde, alegazioak egin dituzten herritarrek etxean jasoko dute erantzuna.

Kontuak kontu, gai sakona eta sendoa da Udalean lantzen ari diren hori. Eta, zehaztasun gehiago jakiteko, Juan Antonio Urdangariegana jo dugu, Hirigintza Saileko teknikariburuarengana.

### EZ DA ALDAEZINA


Hark adierazi digunez, erronka izan da Udalarendako Egitamua egitea, une honetan behar-beharrezkoa da eta herria antolatuko duen araudia izatea. Edozelan ere, gaineratu du gai hori *mitifikatu* egin dela. Herritarrek larregi kez-

katu direla gai horrekin. Izan ere, azken baten, borondate politikoa araberan egingo da Hirigintza dokumentua. Hau da, borondate politikorik ez badago, ez da egiten, eta alderantziz. Azken baten, osoko bilkura batek onartzen duena hurrengo bilkurak atzera bota dezake. Hortaz, Egitamu Orokorra ez da aldaezina.

Edozelan ere, Urdangarinen esanetan, Egitamuak badu filosofia orokorra. Adibidez, hasieratik planteatu izan da Zabalgunean etxebizitzak egingo direla, eta, ondorioz, Gelma lekuz aldatu beharko dela. Kontua da gero hori zelan egingo den. Edo baserri-auzoetarako plan bereziak egingo direla ere onartu dute, adibidez.

## Oraindik bidea falta da

Martitzeneko bilkuraren ondoren sortu diren aldaketak Egitamu Orokorrari sartuko dituzte orain. Horrekin, Hirigintza Sailak beste txosten bat egingo du (15-30 bat egun barru). Eta txosten berri hori berriro ere osoko bilkurak aztertu eta onartu beharko du. Behin hori eginda, Gipuzkoako Diputazioari bidaliko diote, behin betiko onespina eman diezaioten. Hortaz, orain arteko bidea luzea izan bada ere, oraindik bide luzea geratzen zaio Arrasateko Egitamuari. Gogoratu dezagun, orain dela zortzi urte egin zutela Egitamuaren aurreneko txostena, aurre laburpena, alegia, 1994. urtean, beraz.



## Helduen Heziketa Iraunkorrean matrikulazio epea zabalik

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Ferrerias kalean dagoen Helduen Heziketa Iraunkorrean matrikulatzeko epea irail osoan egongo da zabalik. Hilaren 30ean emango diote hasiera aurtengo ikasturteari.**

Arrasateko Helduen Heziketa Iraunkorrek (HHI) matrikulazio epea zabaldu du irail osoan. Arrasaten sortu zen lehenengo talde euskalduna, eta aurreko urteetan bezala jarraitzeko asmoa dute. Iaz 180 ikasle matrikulatu ziren, horien artean jende nagusia; graduatu gabeko gazteak; lanean hasi eta ikasketak berreskuratu nahi dutenak aurkitzen dira.

Interesatuentzako makina bat eskaintza ditzute: alfabetatze maila, gehiago jakin gura duten nagusientzat kultura orokorreko eskolak, eskola graduatua lortu gura dutenendako urte bakarreko ikasketak intentsiboak edo bi urtetako ikasketak. Baita 25 urte baino gehiago dutenendako unibertsitate sartzeko frogak prestatzeko aukera ere.

Aurten, berritasun moduan, goi mailako heziketa zikloa egiteko frogak gainditzen laguntzeko ikastaroak ere eskainiko dituzte. Ikasturtea hilaren 30ean hasiteko asmoa dutenez, matrikulatzeko interesatuak Ferrerias kaleko eraikinera gertura daitezke.

## LABUR


### Bihar, irailak 21, Alzheimer Gaixotasunaren Mundu-mailako Eguna ospatuko dute

Bihar, Alzheimer Gaixotasunaren Mundu-mailako Eguna izango da. Eguna horren helburua da gaixotasuna ezagutaraztea eta gizartearen elkartasuna jasotzea. Hori dela eta, AFAGI elkarteak hilaren 19tik 22ra artean hainbat ekitaldi antolatu ditu Gipuzkoan. Gurean hitzaldia izan zen atzo Monterron jauregian. Txagorritxuko neurologo Galdos medikuak, arratsaldeko sei eta erdietan, *Alzheimer gaur* hitzaldi-eztabaida egin zuen. Irailaren 22an, Elkartasun Topaketa ospatuko dute Elgoibarren. 12.30ean, Udaletxean harrera egingo diete alzheimer gaixo, familia eta lagunei, eta ondoren, SIGMA jatetxean bazkaria. Parte hartu gura duenak Euskadiko Kutzako 30350060410600081081 kontuan egin beharko du ordainketa.

### Oraingo asteko Gobernu batzordeak onartu egin du Udaltzaingoaren lan-egutegi berria

Udaltzaingoa dagoeneko gau eta egunez lanean ari bada ere, oraingo asteko Gobernu batzordeak behin betiko onartu du udaltzaingoen lan-egutegi berria. Horren arabera, lanegunetan hiru txanda izango dituzte: 06:00etatik 14:00etara, 14:00etatik-22:00etara eta gauekoa, 22:00etatik 06:00etara. Asteburuetan, berriz, bi txanda izango dituzte: egunez, 08:00etatik 20:00etara, eta gauez, 20:00etatik 08:00etara. Horrekin batera, zehaztu dute lanegunetako txandetan, egunez zortzi udaltzaingoen lan egingo dutela txanda bakoitzean; eta asteburuetan eta gauez, berriz, egunero, lau udaltzaingonek. Bestalde, adierazi dute gaueko zerbitzuaren eginkizun garrantzitsuenak bi izango direla: kalean egon eta kalea zaintzea; eta aparkalekuak zaintzea.





## EDU ETA MARI JOSE ZAPATUAN EZKONDUKO DIRA

**E**du eta Mari Jose arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. Bikote bihurri horren ezkontza eguerdiko ordu batean izango da, Zumarragako Legazpi dorretxean. Horren ondoren, senitartekoein eta lagunekin batera, Zumarragako Etxeberri jatetxean bazkaria izango dute. Eztei-bidaian nora joango diren ez digute esan, baina badakigu urrun samar joango direla; ezta, Marijo? Txintxoak izateko ez diegu esango!



## MARTITZENEKO HITZALDIRA, INOR ERE EZ!

**D**omekan, Autorik Gabeko Eguna izango da. Horrez gain, irailaren 16tik 22ra arte mugikortasun jasagarriaren aldeko astea egiten ari dira. Martitzenean, hilak 17, *Mugikortasuna eta ingurumena hiriguneetan* gaia hartuta, hitzaldi-

eztabaida zegoen antolatuta Monterronen. Hitzaldira ez zen inor agertu, eta antolatzaileek, ordu erdi itxoiten egon eta gero, hitzaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Badirudi hori guztia ez dela interes orokorreko gai, ezta gutxi batzuen interesekoa ere.



# SIKOL

*Maritxutarako aukera guztiak batzen dituen denda:*  
— Zure gustuko soinekoa diseinatu  
— Egindako soinekoa erosi  
— Osagarri guztiak zure esku: eskularruak, esku-poltsak, galtzerdiak...

Olarte 31 ARRASATE Tel.: 943 79 89 32



# HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

## Kenci Arrasateko mutilak gogotsu ari dira aurrendenboraldia egiten

XABIER URZELAI

Arrasateko saskibaloitza taldeak, Kenci Arrasateko, gogotsu ekin dio aurrendenboraldiari. Mondragoeko taldea aspaldi hasi zen entrenatzen, eta astean lautan entrenatzen dira Iturripen. Asteburuan, etxekoek Durangon izan zen txapelketan hartu zuten esku, eta maila polita erakutsi zuten.

Arrasateko saskibaloitza taldeak joan den asteburuan Durangon izan zen lagun arteko txapelketan hartu zuten esku. Txapelketa zapatuan eta domekan jokatu zen. Zapatuan, Tabirako, Paules, Loiola Indautxu eta Kenci Arrasate taldeek neurtu behar zituzten indarrak, baina Loiola Indautxuk kale egin zuen, eta haren ordez Siglo XXI taldekoak izan ziren txapelketan. Domekan, hiru talde izan ziren: Tabirako, Paules eta Kenci Arrasate, eta hiruko torneoa jokatu zuten. Mondragoetarrek bigarrenak izan ziren, eta txapelketa irabazteko aukerak ere izan zituzten. Arrasatekoak pozik azaldu dira txapelketan egindako lanarekin, taldeak maila polita erakutsi du-eta.

Aste hauetan Arrasateko taldea gogor ari da entrenatzen.



Kenci Arrasate eta La Salle, aurreko denboraldian jokaturako partiduan.

Astean lautan entrenatzen dira, eta badirudi jokalariek batzuk gogo larregirekin hasi direla, dagoneko hiru pibot lesionatuta daude-eta. Jokalari horien lesioak ez dira larriak, zaintiratuak baino ez daukate-eta.

### AURTENGO HELBURUA ERE GARBI

Lehenengo mailan 24 talde arituko dira, bi multzotan banatuta. Lehenengo fasea amaitutokian, bi multzotako lehenengo sei

taldeek igoera fasea jokatu dute, eta Jon Basurkoko, Kenci Arrasateko presidentek, argi dauka Arrasateko taldeak lehenengo hamabi talde horien artean egon behar duela. Aurreko denboraldian etxeko taldeak lortu egin zuten helburu hori, eta aurtentzen lortzea ere espero dute.

Eneko Gorostidik ez du Kencin jokatu, baina Mikel eta Iñigo Biain anaia oñatiarrak Arrasateko taldean izango dira.

## FOTOKIROLA



### Arrasatekoek jipoi ederra jaso zuten

Arrasateko Errugbi Taldeko mutilak aurrendenboraldia egiten ari dira, eta joan den asteburuan, lagun arteko partidua izan zuten. Mondragoetarrek Hernaniko taldearen kontra neurtu zituzten indarrak, eta arrasatearrek sekulako jipoi jaso zuten, Hernanik 91-0 irabazi zuen-eta. Jipoi ederra izan bazen ere, Arrasateko talde oso jokalariek gutxi joan ziren, eta, horrez gain, Hernanik talde nagusiko hainbat jokalarirekin jokatu zuten. Nahiko motibo holako jipoi jaso zuten. /X.U.

## FOTOKIROLA



### Ander Corcuera Valentzian izango da Hyundai Kopan

Ander Corcuera Valentziako Cheste zirkuituan dago atzo ezker. Pilotu arrasatearrek Hyundai Kopako lasterketa bi korritu beharko ditu zapatuan eta domekan. Atzo, entrenamenduak izan zituen, eta gaur, saillapen lasterketak izan zituen. Oraingo asteburuko bi lasterketak denboraldiko bosgarrena eta seigarrena izango dira arrasatearrendako. /X.U.

## DARDOAK

### Gaur, egubakoitza, Dardo Txapelketa izango da Santa Marinako Frontón tabernan

Santa Marina auzoko Frontón tabernak Dardo Txapelketa antolatuko du gaur gauerako. Txapelketa gaueko hamaiketan hasiko da, eta izena eman gura duenak tabernara jo beharko du txapelketa hasi baino lehen. Parte hartzaileen aldetik ez da mugarik izango. Txapelketa cricket erara jokatu dute, baina jende asko badago, joko mota aldatu egingo dute, eta 301 erara jokatu dute.

Txapelketan parte hartu gura duenak hiru euro ordaindu beharko ditu, eta txapeldunak izenematean jasotako %50 irabaziko du. Bigarrenarendako %25 izango da, hirugarrenarendako %15 eta laugarrenarendako %10. Diruaz gain, opariak ere izango dira.

## TXIRRINDULARITZA

### Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak martxa antolatu du domekarako

Domekan, ibarreko zikloturistendako martxa antolatu du Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak. Irteera Eroskin izango da, goizeko bederatzietan, eta helmuga Laubide plazan izango da, eguerdiko ordu bata aldera.

Aurtentzen, Debagoiena Zikloturista Taldeak 25 urte beteko ditu, eta domekako martxa urteurreneko ospakizunetako bat izango da. Horrez gain, Jose Mari Saiz IV. Memoriala ere izango da.

Domekako martxan parte hartzen dutenek 96 kilometro egin beharko dituzte bizikleta gainean. Informazio gehiago Goienkaria-n aurkituko duzue, ibarreko edizioan.

Babeslea

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA


Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

# Zapatuan hasiko da Arrasateko Frontenis Txapelketa

XABIER URZELAI

Dagoeneko jokatu dira Oñatiko eta Bergarako frontenis txapelketak, eta bihar, zapatua, Arrasateko Frontenis Txapelketa hasiko da. Oraindik bikote gehiago espero badira ere, gutxi gorabehera, hamasei bikote izango dira txapelketan, hogeita hamabi lagun, guztira.

Bihar, zapatua, Arrasateko Frontenis Txapelketa hasiko da Musakolako kiroldegian. Izena emateko epea eguaztenez amaitu zen, baina urtero txapelketan izaten diren hainbat bikote oraindik ez zuten izena emanda, eta antolatzaileek izena emateko epea luzatzea erabaki zuten. Txapelketan, gutxi gorabehera, hamasei bikote izango dira.



Arrasateko txapelketa irabazten duenak hamabi puntu eskuratuko ditu.

Ondoren, Bergarako txapelketa jokatu zen, eta Bergaran Candido Hurtado eta Jose Izquierdo mondragoetarrak nagusitu ziren; Patxi Vallejo eta Xabi Albizu izan ziren bigarren, eta aurtengo txapelketa, seguruenik, bikote bi horien artean egongo da.

Arrasateko txapelketa denboraldiko hirugarrena izango da, eta irabazleek, sariak jasotzeaz gain, hamabi puntu eskuratuko dituzte. Bigarren geratzen den

bikoteak hamar puntu eskuratuko ditu eta hirugarrenak zortzi. Aurtun, kanpoko bikoteak ere izango dira txapelketan, Beasaingoak, Zumarragakoak, Gasteizkoak... Txapelketan fase bi izango dira: lehenengo fasea liga erara jokatuko dute eta bigarren fasean kanporaketak izango dira.

Arrasateko txapelketa amaitzerakoan proba bakarra geratuko da Debagoieneko txapelketa amaitzeko, Masterra, hain zuzen.

## FOTOKIROLA



### Barruko igerilekua zabaldu dute

Arrasateko kiroldegiko barruko igerilekua astelehenean zabaldu zuten. Uda amaitzeko gutxi geratzen da, baina aurtengo udan ez da giro onik izan. Kanpoko igerilekuetara inoiz baino jende gutxiago joan da, eta eguraldi txarra izan da horren errudun. Barruko igerilekuak astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 21:00etara, egongo dira zabalik; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00ak arte; eta domeketan eta jaiegunetan, 09:00etatik 13:30etara. /X.U.



ARMAZOIRIK  
GABEKO  
BETAURREKOAK

49

€ TIK HASITA

MODELO DESBERDIN UGARI,  
PREZIO BAKARRA



BONARDI  
ARMAZOIAK

25 €

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88



EIBAR  
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA  
Tel. 943 51 78 11

2002-2003 DENBORALDIKO ERREGIONAL MAILAKO MONDRA FUTBOL TALDEA

# Josu Zubiak hogeita lau jokalaria izango ditu denboraldiari aurre egiteko

Mondra futbol taldeak oraingo asteburuan hasiko du denboraldia, Atxabalpen, Orioko taldearen kontra

## Laugarrenean agidanez

Bihar, zapatua, Mondrak Liga Txapelketa hasiko du, erregional mailan. Aurtengoa laugarren urtea izango du maila horretan, eta Arrasateko taldekoek azkena izan dadin egingo dute lan. Lau urte asko dira, eta zaleak dagoeneko nekatuta daude Mondra bezalako talde bat gatzik gabeko maila baten ikusten.

Arrasaten futbola da jarraitzaile gehien dituen kirola, baina Atxabalpen hori ez da askorik nabaritzen. Zaleek

gurago izaten dute zapatu edo domeka arratsaldea etxeko epeltasunean igarotzea, baina hori aurten amaitu egin behar da. Mondrak goiko postuetan behar du, hasiera-hasieratik, gainera. Jarraitzaileek motibo bat behar dute Atxabalperaino joateko; euren taldea preferentera igotzeko gai dela ikustea, alegia. 24 jokalaria horiek zapatuan izango dute lehenengo aukera, Orioko taldearen kontra. Partidua lau eta erdietan hasiko da.



**Josu Zubia**  
27 urte  
Entrenatzailea



**David Zaitegi**  
31 urte  
Bigarren entrenatzailea



**Julio Hernández**  
21 urte  
Atezaina



**Mikel Mondragón**  
19 urte  
Atezaina



**Jon Lasagabaster**  
19 urte  
Atzelaria



**Andoni Azpiazu**  
22 urte  
Atzelaria



**Argider Arana**  
24 urte  
Atzelaria



**Jon Torres**  
21 urte  
Atzelaria



**Eldin Zivojevic**  
20 urte  
Atzelaria



**Kepa Barbarias**  
22 urte  
Atzelaria



**Iban Roa**  
19 urte  
Atzelaria



**Jon Alkorta**  
20 urte  
Atzelaria



**Xabi Mondragón**  
23 urte  
Erdilaria



**Beñat Ibarguen**  
24 urte  
Erdilaria



**Ruben Rueda**  
27 urte  
Erdilaria



**Arkaitz Garmendia**  
20 urte  
Erdilaria



**Andoni Uribarren**  
19 urte  
Erdilaria



**Jokin Pavo**  
19 urte  
Erdilaria



**Ander Bereziartua**  
23 urte  
Erdilaria



**Iban Garai**  
22 urte  
Erdilaria



**Illart Etxebarria**  
21 urte  
Erdilaria



**Ekain Garin**  
21 urte  
Aurrelaria



**Ion Muruamendiaraz**  
22 urte  
Aurrelaria



**Asier González**  
19 urte  
Aurrelaria



**Iker López**  
19 urte  
Aurrelaria



**David Espinosa**  
19 urte  
Aurrelaria



Goikobalu Abesbatzako hainbat arduradun eta partaidek komunikabideen aurrean berba egin zuten. IKER BARANDIARAN

## MUSIKA/ Goikobalu Abesbatzak kanpaina berriarekin hasi du ikasturtea

# Goikobalu Abesbatzak partaide gehiago behar ditu

IKER BARANDIARAN  
...den martitzenean, Arrasateko Goikobalu Abesbatzako arduradunek prentsatuaren bidez eman zuten Arrasateko Musika Kanpainen ikasturte berriaren batera, partaide gehiago behar dituzte. Abeslari berriak sartu gura dituzte.

baita ume txikiak edukitzeak eragiten duen lana ere".

**TALDEAREN HELBURUAK**  
Goikobaluko helburu nagusiak dira ekintzei eustea, Goikobaluren presentzia herriko ekitaldietan ziurtatzea, euskal musika aurrera ateratzea eta sakontzea, harremanak sendotzea eta ondo pasatzea. Hori guztia ondo bermatzeko, iraganean izan zuten partaide kopurua berreskuratu gura dute; berriro ere taldean laurogeita hamar lagun izan gura dituzte. Goiko-

balu Txikik eta Gaztek, ordea, ondo eusten diote kopuruari.

"Musika, abestea, bidaiatzea eta harremanak edukitzea gustuko baduzue, Goikobaluko entseguetara joateko gonbidapena daukazue", laburbildu zuten abesbatzako arduradunek.

Goikobalukoak martitzenean, 21:00etatik 22:00ak artean, Arrasate Musikalen batzen dira. Eguenetan, ordea, 20:00etatik 21:00etara, Gazteluondon egoten dira. Horrez gain, astelehenera eta eguaztenetan, Pablo Uranga 4.enean (behea) topatuko dituzu.

## Ibilbide luzea eta erronkak

Goikobalu Abesbatza 1989. urtean sortu zen. Sortu zenetik gaur arte, abesbatza osatzen duten hiru taldeek erronka handiak lortu dituzte. Sasoi baten, gainera, Goikobalu Abesbatzako nagusien taldea ehundik gora partaidek osatzen zuten. Nagusia izan da talde ezagunena eta zeresan handiena izan duena. Horra hor, Errusiako Orkestra Nazionalarekin *Carmina Burana* abestu izana; Kiev-eko Orkestrarekin Mozarten *Requiem*-a abestu izana, eta abar.

Horrez gain, Goikobalu Abesbatzak, Bergarako eta Oñatiko abesbatzen laguntzarekin, Lausardi Abesbatza sortu zuen; Garbizuren *Misa Benedictina* grabatu berri du; eta Donostiako Orfeoien kolaboratzaile finkoa ere bada, besteak beste. Goikobalu izen handia daukan abesbatza da, zalantza barik.

Oso ibilbide arrakastatsua daramate eta iazko ikasturtean ere albiste izan dira. Nagusiek zein gazteagoek proiektu berri asko darabilte; horien artean, beste abesbatza batzuekin lankidetzara areagotu gura dute. Era berean, urria eta azaroa artean, Goikobaluko talde guztiek eta Arrasate Musikaleko perkusio taldeak emanaldi berezia egingo dute.

balu Txikik eta Gaztek, ordea, ondo eusten diote kopuruari.

"Musika, abestea, bidaiatzea eta harremanak edukitzea gustuko baduzue, Goikobaluko entseguetara joateko gonbidapena daukazue", laburbildu zuten abesbatzako arduradunek.

Goikobalukoak martitzenean, 21:00etatik 22:00ak artean, Arrasate Musikalen batzen dira. Eguenetan, ordea, 20:00etatik 21:00etara, Gazteluondon egoten dira. Horrez gain, astelehenera eta eguaztenetan, Pablo Uranga 4.enean (behea) topatuko dituzu.

# Ekin Emakumeak Elkarteak ikasturteari gogor eutsi dio

IKER BARANDIARAN

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, Ekin Emakumeak Elkarteak hainbat ikastaro eta lantegi antolatu ditu datozen hilabeteetarako: sukaldaritza, areto dantza, orratz lanak, eskulana... izango dira aukeran.

Ikasturte berria hasteko, aurreko urteetan bezalaxe, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen baitan sortutako Ekin Emakumeak Elkarteak hainbat ikastaro eta lantegi antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Ikastaroez gain, lantegiak eta txangoak ere prestatu dituzte. Arrasateko eta inguruetako emakumeek, hortaz, badaukate euren aisialdia ondo aprobetxatzeko aukera.

Ikastaroei dagokienez, honako hauek antolatu dituzte: Eskulan ikastaroan, esaterako, egurra, laminak, margoa, birziklapena, *Van Dal*, eztainua, zilarra, beruna eta kristala lantzeko asmoa daukate. Ikastaro hori urriaren 1etik abenduaren 17ra bitartean, martitzenero, 15:30ean eta 18:00etan egingo dute.

Orratz Lanen lantegia ere antolatu du, eta orratzarekin lan egiteko asmoz, urriaren 3tik abenduaren 19ra bitartean, eguenero, 15:00etan, elkartuko dira.

Ikastaro edo lantegi horietan parte hartzeko interesa edukiz gero, izena eman irailaren 30a aurretik, Ekin Emakumeak Elkarteak Pablo Uranga 6an (behea) duen egoitzan edo honako telefonoetan: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36. Ekin Emakumeak Elkarteako bulego edo lan ordu-tegia: 15:00etatik 19:00ak arte.

**TXANGOAK ERE PRESTATU DITUZTE**  
Aurrez aipatutakoez gain, Ekin Emakumeak Elkarteak hastapen mailako Sukaldaritza ikastaroa ere antolatu du, batez ere, eguneko platerak egiten ikasteko. Urriaren 17tik abenduaren 19ra bitartean, eguenero, 19:00etan, elkartu eta janak prestatzeko asmoa dute. Hastapeneko sukaldaritza ikasi gura dutenek urriaren 10a aurretik izena eman beharko dute.

Ikastaroen eta lantegien eskaintza zabal horrez gain, Ekin Emakumeak Elkarteak udazkeneko ohiko txangoa prestatu du. Txangoaren egunera arte egun asko gelditzen badira ere, ikastaro eta lantegien eskaintzarekin iragarri gura izan dute. Urriaren 26an, zapateria, Nafarroa ezagutzeko asmoz, Lizarrarantz eta Iruñarantz joateko asmoa dute. Txango horretara joateko interesa dutenek urriaren 14a aurretik izena eman beharko dute. Ekin Emakumeak Elkartearen egoitzan edo aurrez aipatutako telefono zenbakietan.

## DANTZA ETA ESKULAN IKASTAROAK

Areto dantzen ikastaro arrakastatsua, ordea, bi maila nagusi izango ditu: sakontze maila eta hastapen maila. Sakontzeko urriaren 14tik abenduaren 16ra bitartean egingo dute. Eta astelehenero, 15:00etan, egingo dute. Hastapeneko, berriz, urriaren 2tik abenduaren 18ra bitartean, eguaztenetan, 15:00etan, egingo dute.

Ekin Emakumeak Elkarteak



Ekin Emakumeak-en ikastaroetan giro aparta izaten da. EGIN EMAKUMEAK

E, TXO!

GUREGAIK / GIDABAIMENA ATERATZEA

**LASTER, 'LARUNBLAI'**

Irailaren 28an, Txatxilipurdik aurtengo ikasturteko lehenengo *Larunblai* ekitaldia antolatuko du. 11:00etatik 13:30era, Maraka Lantegia egingo dute herriko plazan.

**GAZTE TXOKOAK**

Joan den martitzena ezkerro, Txatxilipurdik Musakolan eta San Andresen dituen gazte txokoak zabalik daude. Oporrei agur esan eta gazte txokoek betiko ordutegiari eutsi diote: arratsaldeko bostetan zabaldu eta iluntzeko zortzietan ixten dituzte.

**GAZTE BATZARRA**

Egubakoitzero, AGAKO-ko gazteek batzarra egiten dute Udalak utzitako behin-behineko lokalean. Sasoi baterako den egoitza hori Altamiran dago, eta oraindik gazte askok ezagutzen ez dutenez, egubakoitzero, 22:30ean, Arbolapetan batzen dira gazteak. Handik, gazteek Altamirako egoitzara jotzen dute. Gazteei gonbita egin diete, parte hartzeko.

## Gidabaimena ateratzeko erronka, gazte askoren ametsa

IKER BARANDIARAN

Uztaila eta iraila artean, gazte askok eta askok gidabaimena ateratzeko ahalegina egiten dute. Opor luzeak dituztela aprobetxatuta, amets hori betetzen saiatzen dira, autoa gidatzeko baimena ateratzea.


Jakina da herrian geroz eta ibilgailu gehiago daudela, eta horietariko asko gazteenak direla. Gehienak hamazortzi urte betetzeko irrikan egoten dira, batik bat, askatasun eta aisialdirako denbora luzeagoa izaten delako adin horretan. Eta askatasun horietariko bat mugimendu askatasuna da, horrela esaten dute, behintzat, iragarkietan. Ibilgailua edukitzearen abantailetariko bat edozein lekutara mugi zaitezkeela da. Are gehiago, garraio publiko hain eskasa daukagun ibar honetan.

Gazteak adin-nagusitasunera iristerakoan autoeskoletara joaten dira, automobileko gidabaimena ateratzeko asmoz. Arrasaten gidabaimena ateratzea

*Arrasateko eskolatan gidatzeko baimena ateratzeak 1.178 euro inguru kostatzen ditu*

nahiko garesti irteten da. Gutxi gorabehera, 1.178 euro kostatzen da. Hala ere, horietariko askok lehenengo azterketa egin aurretik utzi egiten dute, testekin dabiltzanean, hain zuzen ere. Eta azkenean, bi hilabetean atera litekeena luzatu egiten da.

Gidabaimena lortzen duteneko askok etxeko autoa erabiltzeko egiten dute, aurrera begira euren autoa erosteko asmoa izan arren. Baina beste askok baimena ateratzen duten unetik auto berria izaten dute; bai lanean ibili eta diru pixka bat aurrezteko aukera izan dutelako edo familiariko norbaitek erosi dielako.



Test ugari egin behar izaten dira gida baimena

**APARKATZEKO ARAZOAK**

Aparkalekuen arazoa ibilgailu ugari dagoelako sortzen baldin bada ere, automobilak edozein lekutara joateko erabiltzea beste arazo bat da. Jendeak etxetik kalera jaisteko erabiltzen ditu, eta hor agertzen da arazoa, larregizko erabilera horretan. Zentzuzko ezinbestekoa dute ibilgailua hartzea, baina gehienek alferkeria hutsarengatik egiten

dute.

Hori dela eta, etxetik kalera jaisteko, autoa hartu beharrean, oinez, bizikletaz edo herri autobusez eginda, arazoari irtenbidea topatuko genioke, eta, gainera, kutsadura maila jaisteko ere balio izango luke. Gogora ezazue aste honetan Autorik Gabeko Eguna ospatuko dela herrian. Hala ere, egun seinatuak ohiko egun egin beharko lirateke.

**ESKULAN IKASTAROA:**

Gaiak: egurra, laminak, margolanak, birziklatzea, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala.

Noiz: urriaren 1etik abenduaren 17ra bitartean, asteartero, 15:30ean eta 18:00etan.

Izenematea: elkarteetan bertan, irailaren 30a baino lehen.

**ARETO DANTZEN IKASTAROA:**

Noiz: SAKONTZE MAILA: urriaren 14tik abenduaren 16ra bitartean, astelehenero, 15:00etan.

HASTAPEN MAILA: urriaren 2tik abenduaren 18ra bitartean, asteazkeneko, 15:00etan.

Izenematea: elkarteetan bertan, irailaren 30a baino lehen.

**ORRATZ LANEN LANTEGIA:**

Noiz: urriaren 3tik abenduaren 19ra bitartean, ostegunero, 15:00etan.

Izenematea: irailaren 30a baino lehen, elkarteetan bertan.

**UDAZKENEKO TXANGOIA:**

Nora: Nafarroa ezagutzera (Lizarrak eta Iruñea).

Noiz: urriaren 26an (larunbata).

Izenematea: elkarteetan bertan, urriaren 14a baino lehen.

**HASTAPEN MAILAKO SUKALDARITZA:**

Noiz: urriaren 17tik abenduaren 19ra bitartean, ostegunero, 19:00etatik 21:00etara. 10 saio.

Izenematea: elkarteetan bertan, urriaren 10a baino lehen.

Laguntzaileak: Arrasateko Udala - Emakume Saila  
Emakunde  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**Ekin**  
Emakumeak • AED

INFORMAZIO GEHIA  
ETA IZENEMATEA,  
HELBIDE EDO TELEFONO  
ZENBAKI HONETAN:

Interesatuak:  
943 79 83 70  
651 70 79 36  
Pablo Uranga, 6  
ARRASATE

BEHEKO KONTSESIONARIOTIK

Jon Galdos

UDALAITZ KONTSESIONARIXOKUE

XABIER URZELAI

Mondraguetar honek hamabi urte daroie Udalaiz kontzesionarixuen lanien. Kontabilidade lanetan hasi zan, eta oin, komertzial lanak be egitten ditu. Komertzial lana erakargarrixe izen leike, baiñe denpora luzie eskaketan dauen lana da, eta horixe igerten dau Jonek faltan, denpora librie.

Ametz bat?

Denpora libre luziague eukittie. Eta ametz txar bat? Ez dakit aurten Realak lelengo maillari eutsiko dutzon.

Egin dozun azken biajje?

Tarragonara, oporretan.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei, jeneralien.

Eta gorrixe?

Madril aldeko politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Akziñue daukien pelikulak gustetan jat / Gutxi irakurten dot, baiñe beldurrezko liburuek gustetan jat / Oin, umiek entzuten dauena entzuten dot.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai. Kondiziño hobien egon daittezen.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Gauza gutxi. Iguel, kiloren bat-edo.

Eta faltan?

Lehen esandakue, denpora librie.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Herriko jentie.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Madrillekuei kasu txikixague egingo neuskie.

Mendi bat?

Mendixe beti gustau izen jat, eta Udalatx esango dot.



XU.

*“Kotxien izenagaikk zerbait ordainketan da, baiñe kalidadie eta diseiñue be hobiak izeten die”*

Bizi izetara hiri batera juketotan, nora?

Ez nitzake juengo hiri batera bizi izetara. Mondraguen gustora nago.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Hona jente interesante asko etorten da, ezaguketie merezi dauenak bai, behintzet.

Eta ezagutu nahiko zeunkena?

Ez jat inor be okurriduten.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Kotxe baten.

Audi, Volkswagen, Seat, Skoda... Horrenbeste kotxe, saltzaille onak zarelako ala kotxe

*“Gaur egun, kotxe bariixe erostrera datorrenak gutxi gorabehera badaki ze gure dauen”*

marka larregi daguzelako?

Geure arduradunek horreik kotxe markok daukie hartute, eta horreikin egitten dogu lan. Ez dago beste arrazoirik.

Kotxie erostrera trajiakin datorrenari zuzenien Audixe erakutsiko dutzeue, ala?

Trajedun gutxi etorten da, eta jentiek aurretik badaki ze gure dauen.

Kotxiaren izenagaikk zenbateko plusa ordainketan da?

Hori Audin galdetu biherko dozu. Zerbait ordainketan da, baiñe kalidadie be hobie da.

Zuek saltzen ez dozuen gustoko kotxe marka bat?

BMW.

NIRE BIDAIA HURA / Josu Errasti

AEBetara eta Kanadara / 2002ko udan

Josu ingelesa ikasteko asmoz abiatu zen Ameriketako Estatu Batuetara. Ez zen lehenengo aldia, joan den urtean ere asmo berberarekin joan zen-eta hara. Lehenengo zazpi asteak Ocean Cityn egin zituen, jatetxe baten lanean. Atzerriko jende mordoaz ezagutzeaz gain, estatubatuarrek apur bat hobeto ezagutzeko aukera ere izan zuen. “Izatez, estatubatuarrek nahiko harroak dira. Zure ingelesa haiena bezalakoa ez bada, ez dute zurekin berba egiteko ahaleginik egiten. Bestalde, eta kontraesana bada ere, arazoren bat izanez gero, laguntzeko prest egoten dira.



*“Kanada oso polita da, izugarri gustatu zitzaidan”*

Josuk zazpi aste egin zituen lanean, eta lana amaitzerakoan geratzen zitzaizkion zazpi egunak bidaiatzeko aprobetxatu zituen. AEBetara ez zen bakarrik joan, Elgoibarko Enpresa Zuzendaritzako hainbat ikaskide ere Josurekin joan ziren-eta. Auto bat errentan hartu, eta lehenengo egunean Chicagorako bidea hartu zuten. 1.400 kilometro zituzten egiteko, eta bidaiak nahiko luzea egin zitzairen. Lo egitera aireportura joan ziren. “Leku segurua da, eta lo autoan egin behar genuenez, oso leku aproposa zen”.

Aireportuan, baina, izan zuten anekdotarik: “Autoa aparkalekuan utzi genuen, eta komunetara joan ginenez horzatzak garbitu eta apur bat txukuntzera. Komunetarako bidean jende mordoaz zegoen billeteak erosteko asmotan, eta gu nezeserrek. Egoera barregarria izan zen”. Zazpi egunean 6.500 kilometro egin zituzten, eta Chicago, Buffalo, Niagarako ur-jauziak, Toronto, Montreal, Quebec, Trois-Pistols eta Boston ezagutzeko aukera izan zuten.

Alokatutako autoak GPS sistema zeukan, eta lekuak aurkitu eta zer bisitatu jakiteko oso lagungarria izan zela dio Josuk. Hiri bakoitzeko gauza interesgarrienak bisitatzeko aukera izan zuten; Sears Tower, Chicago Bulls-en estadioa, Niagarako ur-jauziak, Etxe Zuria, Kapitoloia, hainbat museo, estatua eta eraikin asko eta beste ehunka gauza. Bidaiak motza, baina ondo aprobetxatutakoa.

XABIER URZELAI



Xabi, Ekaitz eta Josu, Niagarako ur-jauzietan Kanadako polizia batekin.

**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Hilbera**  
kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

**Maritxu Kajoi**  
egunerako makilatua eta orraztu  
20 €tik aurrera

**ZATOZ!**

Maalako Errabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

## ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Uribarriko zaharren egoitzakoek, argaltzeko baino gehiago, arinago egoteko egiten dute ariketa fisikoa.

## Uribarriko zaharren egoitzako gimnasiak arrakasta handia du

IKER BARANDIARAN

Uribarriko zaharren egoitzakoek asteleheneretan, martitzenetan eta egueneretan gimnasia egiten dute. Azkeneko bi urteotan Iturripeko kiroldegian ibili izan dira. Egun horietan, goizetan batu eta bi txandatan (10:15-11:00 eta 11:00-11:45) ariketa fisikoa egiten dute.

Gaur egun, hirurogei bat lagun batzen dira, ia guztiak emakumezkoak. Iaz, salbuespen moduan, bizpahiru gizonen eman zuten izena eta badirudi aurtengo ikasturtean ere jarraitzeko asmoa dutela.

Hiru ordu laurdenerako saioak egiten dituzte: hasieran, bertzeko, korrika egiten dute; horren ondoren, buruko, besoetako eta hanketako luzatze-ariketak egiten dituzte. Jarraian, egunaren araberak, soka saltoan, pilotan edo futboleko aritzen dira. "Guk eskatzen diogu edo guk proposatzen diogu irakasleari zein kirol mota egin gura dugun", azaldu zigun Uribarriko zaharren gimnasia

taldeko beteranoetako batek, Sabina Altunak.

### DUELA HAMABI URTE HASI ZIREN

Uribarriko zaharren egoitzako gimnasia egiten hasi zirenetik hona hamabi bat urte igaro dira. 1990. urtean, zaharren egoitza Erguin kalean zutenean, hasi

ziren. Sasoi hartan, Uribarriko batzarrak zuzenean irakasle bat kontratatu zuen eta Uribarriko egoitzaren areto nagusian egiten zuten ariketa fisikoa. Orduan, zortzi-hamar lagun hasi ziren, baina, poliki-poliki, jende berri gehiago batuz joan zen.

Egoitza berrira pasatu zirenerako, ordea, jende multzo handia osatzen zuten, eta egoitza horrek ez ditu aukera berberak eskaintzen. Hainbat urtean, gimnasia ikastaroak egungo Uribarriko zaharren egoitzan egin zituzten, baina, arduradunek onartzen dutenez, "han leku handirik ez dago, eta ez dago aireztapenik ezta dutxarrik ere. Egia esanda, horrelako ikastaro bat egiteko leku eskasa da".

Duela pare bat urte, berriz, egoitzatik Iturripeko kiroldegira joan ziren. Era berean, kiroldegian bitartez, beste irakasle bat kontratatu zuten. Erretiratuak pozik daude aldaketa horrekin, eta ariketa fisikoa egiteko eguna heltzeko irrikan egoten dira. "Izugarrizko aldea dago, eta oso gustura gabiltza ikastaroarekin".

### Azoka bako egunak, hobeto!

Duela hamabi bat urte gimnasiako ikastaroekin hasi zirenetik hona, astelehen, martitzen eta eguenera goizetan egin dute.

Asteko egun zehatz horiek aukeratzeko arrazoi nagusiak da gainerako astegunak, eguaztenak eta egubakoitzak, alegia, azoka egunak direla, eta ikastaroko partaideek azokara joan gura izaten dutela.

## LABUR

### Musakolako zaharren elkartearen presidente eta diruzain bila dabilta

Joan den ikasturtean, oporren aurretik, luzaroan Musakolako zaharren elkartearen presidente eta diruzain lanak egiten ibilitako Andres Indak eta Jose Bengoak kargua utzi zuten.

Hori dela eta, Musakolako zaharren batzarra kargu horiek bete-ko dituzten lagun biren bila dabil. Interesatuok, jo arratsaldeetan, 18:30ak eta 20:30ak bitartean, elkartera.

### Iturbide egoitzarako hamabost ohe elektriko erosi dituzte laster Arrasateko Udalak

Arrasateko Udaleko Gobernu batzordeak Iturbide egoitzako zuzendaritzak egindako proposamena onartu egin du. Horrela, Udalak Iturbide egoitzarako hamabost ohe elektriko erosi dituzte laster, egoitza horretako bizi kalitatea hobetuz joateko. Erosketa horren bitartez lortu gura dute Iturbide egoitzako 98 bizilagunek ohe elektrikoak edukitzea.



### Paseatzea, jende nagusiaren zaletasuna

Herriko adindun asko herrian gelditu dira oporretan. Urteko beste sasoi batzuetan joan ohi dira kanpora, eta abuztuaren herrian lasai-lasai gelditzea gustuko dute. Dituzten zaletasunen artean, paseatzea nagusienetakoa bat da.

Aurtengo uda, ordea, ez da kalean ibiltzeko aproposena izan. Eguzkia ez dugu ia ere ikusi eta tarteka euria ere egin du. Arrazoi horregatik, herriko adinduek ondo hartu dute iraileko, egun hauetako, eguzkia. Ondo hartu bakarrik ez, gustura dabilta alde batetik bestera paseatzen. //B.

**Aretz**  
Taberna

Markole, 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

**Danona**  
KARROZERIAK

Konponketak  
txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

**LILURA**  
OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa.  
Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5. behea.  
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Aste honetako galdera: zein kaletan dago argazkian azaltzen den armarría?  
Arrastoa: harresitik kanpo dago.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN**  
**EGUERDIRAKO** ARRASATE PRESSERA!

Gran Duque ardoa  
litroko brika

**0,57€** 95 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**IDOIA ERRARTE** endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Idoia!  
Galderaren erantzun zuzena:  
**Monterongo sekuia handia.**

ARRASATEKO HISTORIA

'Mondragón', herriko txikienei kontatzeko ipuin liluragarria

JON ANDER RAMOS

A lfontso X.aren aginduz aldatu zioten Arrasateri izena. Errege *Jakintzuak* Mondragón izenarekin izendatu zuen Arrasate 1260an.

Izena zergatik aldatu zion asmatzea ez da erraza, eta asko ahalegindu dira hori argitzen. Batzuen ustez, herriari Mondragón izena, beste barik, polita zelako jarri zion. Alfonso X.a poeta eta musikaria ere bazen, eta haren poemetan izen horrek belarrira ondo egiten ei zuen. Beste batzuek diotenez, Gortean Guillén de Mondragón izeneko bat zegoen, eta haren izenean aldatu zion Arrasateri Mondragón izena. Ehunka hipotesi izan dira, eta azkenerrako ipuin liluragarri bat ere sortu zen.

Mondragón herriaren gainean, Muru mendian, dragoi handi bat bizi zen orain dela urte asko. Dragoiak sekulako sarraskiak egiten zituen herrira jaisten zen bakoitzean, eta azkenerrako herritarrek tratu bat egin zuten dragoiarekin. Urtean behin, herriko neskatxa bat eskainiko zioten jateko, baina ordainetan

*Mondragón herriaren gainean, Muru, dragoi handi bat bizi zen orain dela urte asko*

dragoiak ezin izango zuen herrira jaitsi. Urteek aurrera egin ahala, herritarrak nekatu egin ziren, ordaindu beharrekoa zerga garestiegia zen-eta. Hainbat gizonek Mururako bidea hartu zuten. Urte hartan ordaindu beharrekoa zerga ere bazeramaten, baina oraingoan ez zen neskatxa bat, neskatxa itxura zeukan, baina argizariz egindako irudia zen.

Dragoiak berehala irentsi zuen argizariz egindako irudia, eta gizonek, hori aprobetxatuta, gori-gori zegoen burdin luze bat ahotik barrena sartu zioten, eta hantxe hil zuten dragoia. Ipuin horretan, garai hartako beste ipuin askotan bezala, herritarrak dira heroiak, konkretuki, olagizonak, haiek hil zuten-eta dragoia.



XABIER URZELAI

Gaur egun, Arrasateko dragoiak ez du inor beldurtzen. Haren lana herria zaintzea da.



ARRASATE  
**Leire Barbero**  
Irailaren 9an, urtebete.  
Zorionak! Oihana eta Jokin.



ARRASATE  
**Unai eta Asier Dolara**  
Asierrek irailaren 21ean, 3 urte eta Unai irailaren 24an, 7 urte. Zorionak, etxekoen partetik.



ARAMAIO  
**Leire Vilches**  
Irailaren 24an, urtebete.  
Zorionak, Ainhoaren eta osaba-izeben partetik.



ARRASATE  
**Garbiñe Lizaranzu**  
Irailaren 23an, 24 urte.  
Zorionak, *Firritxu!* Faus, Jusepe eta amatxo.



ARRASATE  
**Iban Corral**  
Irailaren 24an, 22 urte.  
Zorionak! Neskalaguna eta gurasoak.



ARRASATE  
**Jose Antonio Guerrero**  
Irailaren 19an, urtebete-tzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Mila Amozarrain**  
Irailaren 25ean, urtebete-tzea. Zorionak! Mikel, eta abar...



ARRASATE  
**Estitxu Azkoaga**  
Irailaren 19an, 13 urte.  
Zorionak, *preixoa!* Oihana, Jokin, Pili eta JoseAngel.



ARRASATE  
**Jokin Aiastui**  
Irailaren 18an, 24 urte.  
Zorionak! Oihana eta Jone.



ARRASATE  
**Ane Izquierdo**  
Irailaren 20an, 18 urte.  
Zorionak! Ama, aita eta Nerea.



ARRASATE  
**Estefanía Martín**  
Irailaren 18an, 11 urte.  
Zorionak! Zure koadrila-koak.



ARRASATE  
**Cecilio Berezibar**  
Irailaren 18an, urtebete-tzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Eider Zubizarreta**  
Irailaren 20an, urtebete.  
Zorionak! Oxel.



ARRASATE  
**Asier Murguzur**  
Irailaren 20an, 10 urte.  
Zorionak! Jon eta Eider.



ARRASATE  
**Lide Galdós**  
Irailaren 23an, 6 urte. Zorionak! Gurasoak.



ARRASATE  
**Mari Azkarate**  
Irailaren 17an, urtebete-tzea. Zorionak! Familiako-  
en partetik.



ARRASATE  
**Ane Garin**  
Irailaren 18an, 16 urte.  
Zorionak, *poixola!* Familiako-  
en partetik.



## Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!  
Otalora lizentziaduna, 31.



## Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

*Maritxu gau bereziko orrazkerarik ederrena*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
**ARRASATE**

## TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## BITTORI

### ERRETEGIA

**Eguneko menua • Kartako menua**  
**Espezialitateak:**  
**legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



## Parques y Jardines

- Parke eta lorategien sorkuntza.
- Lorazaintzako mantenimendua orohar.
- Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.

Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 • ABADIÑO



# Gazte Ikastaroak

## IRRATI LANTEGIA: Esataritza eta lokuzioa

Irakaslea: Gaizka Bitoria.  
Arrasate Irratian.  
Urriaren 19tik azaroaren 30era arte.  
Zapatu goizetan, 11:00etatik 13:30ak arte.  
Taldea: gehienez, 7 lagun.  
15 urtetik gorakoei zuzenduta.  
Matrikula: 30€/ 15€ ikasle eta langabeendako.

## KOMIKI IKASTAROA

Asisko Urmenetaren eskutik.  
Urriaren 10ean, 14an eta 17an. Saio bakoitza.  
ordu bikoia izango da.  
(astelehena, osteguna, astelehena)  
Lekua: San Viator Ikastolan.  
18:00etatik 20:00etara.  
Plaza mugatuak. Gehienez, 12 ikasle.  
Emakumea Sailak eta Gazteria Sailak antolatua.

## EUSKAL DANTZA

Lore Gazteak taldearen eskutik. 10 urtetik  
gorakoendako.  
Urriaren 18tik abenduaren 13ra arte.  
Ostiralak, 19:00etatik 20:30ak arte.  
Lore Gazteak taldearen lokaletan.  
Matrikula 9€ izango da.

## PERKUSIO IKASTAROA

Urriaren 7tik abenduaren 17ra arte.  
Astelehenetan, 18:00etatik 19:30ak arte.  
Hastapen ikastaroa.  
Astelehenetan, 19:30etik 21:00ak arte.  
Sakontze ikastaroa.  
matrikula: 25€  
Gazteluondoko lokaletan.

## SABEL DANTZA IKASTAROA

Irakaslea: Jaione Albeniz.  
Azaroaren 9tik abenduaren 21era arte.  
Ikastaro bi: 10:00etatik 12:00etara, Hastapen maila.  
12:00retatik 14:00etara. Sakontze maila.  
Bi ikastaroak zapatu goizetan izango dira.  
Arrasate Musikalen  
Matrikula: 30 €. 15 € ikasle eta langabeendako.

## FUNKY HIP HOP DANTZA

Urriaren 8tik abenduaren 17ra arte.  
Astearteetan, 18:00etatik 20:30ak arte.  
matrikula: 30€/ 15€ ikasle eta langabeendako

## AUTODEFENTSA IKASTAROA

Emakumea Sailak antolatua.  
Informazio gehiago Gazte Bulegoan.

## IPUIN KONTALARI IKASTAROA

Urriaren 10etik abenduaren 19ra arte.  
Ostegunetan, 18:30etik 20:30ak arte.  
matrikula: 30€/ 15€ ikasle eta langabeendako

Ikastaro horietan izena emateko  
Gazte Bulegora jo behar duzue,  
edo 943 77 00 65 telefonora deitu.



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko irailaren 20a / 38. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Dagoeneko guztia gertu dago aurtengo Txirritola Eguna ospatzeko

UBANE MADERA

Azken urteotan ohitura bihurtu denari segituz, gaur zortzi Txirritola Eguna ospatzeko ekitaldiak hasiko dira Aramaion. Pailazoak, herri bazkaria eta Amaia Zubiria abeslaria izango dira, besteak beste. Herri bazkarirako txartelak aurretik erosi behar dira.

Hiru urte beteko ditu martxoan Txirritola Euskara Elkartek. Eta, urte horietakoarekin jarraituz, aurten ere Txirritola Eguna antolatu dute irailaren azkeneko astebururako.

Barikuan eta zapatuan izango dira ospakizun ekitaldiak. Umeendako saioarekin hasiko dira. Horrela, barikuan bertan, Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoak arituko dira, kultura etxean, arratsaldeko sei eta erdietan. Sarrerak bost euro balio du, hiru euro liburutegian aurretik erositzen gero.

### HERRI BAZKARIA

Baina jaien egun handia zapatuan izango da. 13:00etan, trikitixak lagundutako txikiteoa izango da; eta barruak ondo berotu eta gero,



Amaia Zubiria abeslariak kantu zahar eta berriak kantatuko ditu datorren zapatu gauean.

herri bazkaria, 14:30ean. Bazkaria joateko irailaren 25a baino lehen erosi beharko dira txartelak. Herriko tabernetan daude salgai. Nagusiek hamar euro

ordaindu beharko dituzte eta umeek, berriz, sei. Bazkalostean, Gillermo Segurola txistekontalaria arituko da bazterrak pozten bere txistekin.

Eta, bukatzeko, gauean, luxuzko abeslaria entzuteko aukera izango da: Amaia Zubiria. Hark kantu zahar eta berriak abestuko ditu Aramaion.

*Barikua arratsaldean, Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira kultura etxean*

*Herri bazkarirako menu goxoa prestatu dute: paella, erredondoa eta tarta izozkiarekin*

*Eguna biribiltzeko, Amaia Zubiria abeslariak kontzertua eskainiko du*

### HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

## Distantzien gainean berbetan

Irail berria, udazken berria, Aramaion taberna "berria" baina berri berririk ez: zaharrek berri paraje hauetan ere, badirudi gure notiziarioa agurtu eta kaletik paseatzen duen aitate bihurtu dela. Hala ere, hemen natorkizue berriro idatzizko jardunak, ematen duen distantzia honetatik. Eta abisatzen dut: gaur "distantziak" jardungo dut.

Distantzia baita mundu erdi-berde honetan daukagun kontzepturik erlatiboena, eta erlatibotasun hori frogatzeko zerrenda bat izan nahi nuke gaurko ataltxo honek. Distantziak ez baitu berdin balio begiratua den batentzat, edo

begiratzen dionarentzat, begiratzen duena beti sentituko baita urrunegi, eta begiratua hurbilegi. Edo barruan deabru txikiren bat daramanarentzat beti izango da distantzia txikiegia, Antartikara badoa ere hurbilegi edukiko baitu deabru hori bihotzetik, Antartikan bihotza ere izoztu egin daitekeela sinistuko duen arren. Edota batzuentzat demokrazia beti dago urrun, edo urrunegi, eta besteentzat (denok



**"0-lekua izan daiteke bakoitza bizi den etxea"**

mendi punta bat, hondartzan hondoratutako makina bat edo putetxe bat. Baina erreferentzia bat da beti. Bertatik esango

dakigu zeinetaz ari naizen) hurbilegi, bai, hurbilegi.

Guztia da bakoitzaren 0-lekua (eta ez naiz estatubatuarrek mundu osoari saldu dioten orube horri buruz ari) non kokatzen den. Bertatik egongo gara hurbil, edo urrun. Eta 0-lekua izan daiteke bakoitza bizi den etxea,

dugu urrun edo hurbil gauden.

Baina ez hurbil edo urrun munduan momentu honetan daukagun kokagunearen arabera, gure hurbil edo urrun egotearen kontzeptioaren arabera baizik. Ni egon bainaitetxe putetxe batetik hurbil, eta inpotentea izan (hurbil eta urrun aldi berean egotea deitzen diot nik horri). Eta punto.

Nik ez dakit zenbat distantzia dagoen Aramaiotik Emaldipera, baina ez naiz bertatik hurbilegi edo urrunegi egongo asteburu honetan, hori izango baita nire 0-lekua 21 eta 22an. Bon Voyage!

### LABUR

## Udalbatzarrak ohiko bilkura egin zuten eguaztenean

Hamar gai zituen udalbatzarrak aztertzeko iraileko bilkuran. Tartean, babes ofizialeko etxebizitzekin lotuta, xehetasunezko estudioa onartzea proposatu zieten zinegotziei. Horrez gain, Arexolako lanak egiteko aurkeztu diren enpresen proposamenak ere aztertzeko zituzten. Eta, bukatzeko, kultura etxearen kudeaketa kontratua luzatu edo ez erabaki behar zuten. Edozelaan ere, hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dakigu zertan geratu diren.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45	
20:05	20:20*	21:05
21:00	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:00	19:45	20:00

**OHARRAK**

**ARAMAIOKO GAZTE ABESBATZA**


Aramaioko hainbat neska-mutilengan gazte abesbatza osatzeko gogoia sortu denez, dei egiten diete gazteei, ekimen horretan parte hartzea gura izanez gero, ager daitezela gaur, bari-kua, 19:00etatik 20:00etara kultura etxean izango den batzarrera. Batzar horretan egitasmo hori aurrera eramateko aukera eta laguntzak aztertuko dituzte. Anima zaitetzte, bada, zenbat eta gehiago, hobe izaten da-eta! Zalantzaren bat izanez gero, 20:00etatik aurrera telefono hauetara dei egin dezakezu: 945 44 51 75 edo 945 44 52 47.

**JANTOKIRAKO JENDE BILA**

San Martin Eskolako jantokia erabiltzen duten umeak zaintzeko langileak behar dira. Ezinbestekoa da euskaraz berba egitea. Interesatuok, deitu 945 24 80 62 edo 945 24 95 62 telefonotara.

**ERRETIRATUEN EGUNA**

Aramaioko Udala arduratuko da oraingo urteko Erretiratuen Eguna antolatzeaz. Kontua da makina bat urtean San Martin Sendi Elkarte arduratu dela lan horrekin, baina dagoeneko elkartea bertan behera geratu denez, Udalaren ardurapean geratu da egun hori antolatzeari. Edozelan ere, orain arte bezala, urriko azkeneko zapatuan egingo dute herriko nagusiendako jaiak.



**Xabierren agurra**

Azken hiru urteotan Aramaion abade eginkizunetan ibili den Xabier Madrilera joango zaigu, Teologia ikastera. Urte haue-tan guztietan meza ugari esan ditu Aramaioko auzoetan, eta, joan aurretik, auzotarrek hainbat oroigarri eman dizkiote. Argazkikoak Urizarri auzokoak dira eta eman zioten argazkia du eskuetan Xabierrek. /ROSA MONDRAGÓN



**Behia opari, "mutlizahar" berriari**

Asier Arrizabalagaren koadrilak ezuste ederra prestatu zion 30 urte bete berri dituen mutil horri. Aramaion ohitura den bezala, 30 urte bete eta andregairik ez daukana *mutlizahar* izatera pasatzen da. Aitzakia horrekin, lagun arteko afaria izan zuten joan den zapatuan, eta Asierrek sekula ez ahazteko moduko oparia jaso zuen: argazkiko behi dotore hori! Zorionak!. /R.M

**BOTEPRONTOAN/ Jabier Arriaran · Oiligor ehiza eta arrantza taldeko presidentea**

*"Fama handiegia daukagu hemen, Aramaion, eta ez da horrenbesterako"*

**E** hizak zale ugari batzen ditu Aramaion. Horren adibide da Oiligor elkarteak batzen dituen bazkide mordoak. Horren gainean jardun dugu Jabier Arriaranekin (Xabi, lagunendako), Oiligor elkartearen presidentearekin. Besteak beste, kontatu digu Oiligorrek Aramaioko ehiza-barrutia kudeatzen duela:

**Zelan da hori?**

Gauza bat da elkartea eta beste bat ehiza-barrutia. Hemen barruan bazkide mordoak gaude (220 bat), baina guztiak ez dira Oiligorreko bazkide.

**Noiztik zaude taldean?**

Sei urte daroat, lau diruzain eta orain, urtebete daroat presidente. Beste bat, eta kito. Sei urte nahikoa dira. Ardura handia da, istripurik izanez gero, aurreneko arduraduna neu naiz. Bazkide izaten segituko dut.

**Taldea noiz sortu zen?**

Ehiza-barrutiak hamar urte daroat. Gipuzkoarekin eta Bizkairekin konparatuta, Araba desberdina da. Gipuzkoan eta Bizkaian dena librea da, edozein joan daiteke edozein lekutara; Araban ez. Taldea? Ez dakit ziur. Nik ikusita ditut 60ko hamarkadako paperak.

**Badakizu zergatik sortu zen? Elkartzeko modua-edo izango**



*"Aramaioko talde handienetariko bat gara. Ehiza taldeekin konparatuta, asko gara"*

zelako, lagun artean ibiltzeko...  
**Asko zarete taldean...**

Bai, Aramaioko talde handienetariko bat gara. Eta, gainerako ehiza taldeekin konparatuta, asko gara; batez beste koaren gainetik gaude.

**Ehiztariak eta arrantzaleak, biak konparatuta?**

Ez. Ehiza eta arrantza taldea gara, baina arrantza utzita dugu. Aurten, taldeari izena aldatuko diogu, ehiza talde izateko. Urtean umeendako arrantza lehiaketa bakarrik egiten dugu, besterik ez.

**Elkartean zer egiten duzue?**

Paperak, ehiza denboraldia preparamu eta postuak zozkatu. Zozketa ordenagailuz egiten dugu, urtean hilabete birako: urrirako eta abendurako. Hala, bakoitzak egunero-egunero postua dauka. Horrez gain, Oiligor Txapelketa antolatzen

dugu azaroko bigarren astean. Irabazlea Arabako Txapelketa joaten da; eta nahiz eta azken urteetan emaitza txarrak izan, Aramaiotik joan izan da jendea Euskal Herriko eta Espainiako txapelketetara.

**Zenbat postu daude Aramaion?**

143 bat. Tellamendin, San Adrianen, Kurtzeberri eta San Adrian bitartean, Kurtzetan, San Kristobalen eta Arangion zatitxo bat. Marixekan, Jarinko puntaraino eta handik Gipuzkoako mugaraino. Aurten, gainera, beste 15 urteotarako berri dugu.

**Zeren postuak dira?**

Batzuk usoendako, beste batzuk birigarroendako; eta beste batzuk mistoak dira.

**Eta ehiza ona dago hemen?**

Fama handiegia daukagu hemen, eta ez da horrenbesterako. Uso-paseak lau eguneko daude, eta oilagor eta basurde gutxi dago. Oilagor urte ona izanez gero bai, baina bestela... Birigarroei dagokienez, azken urteetan nahiko eskas gabilza. **Zer esango zenieke ehizaren kontrakoei?**

Usoen ehizaren kontra egotea absurdua dela, usoa seguru dago. Eta, adibidez, Europarekin konparatuta, hemen ehiza nahiko mugatuta dugu.

*"Usoen ehizaren kontra egotea absurdua da. Asko dago. Ehiza nahiko mugatuta dugu"*

## ERRETRATUZAHARRA

Aramaioko pilotariak  
Barajuengo frontoian

**G**aur egun Aramaion pilotaleku eder askoa duten arren, garai baten ez zegoen horrelakorik, eta pilotazaleek Barajuengo pilotalekura joan behar izaten zuten pilotan jokatzera. Gure berriemaileak esan digunez, pilotarekiko zaletasun handia zegoen orduan Aramaion. Ia domeka eguerdiro izaten ei ziren partidua Barajuenen, eta "egundoko giroa" izaten zuten, gainera.

Sasoi hartako argazkia duzue hauxe, 1979. urtekoa, hain justu ere. IV. Pilota Txapelketa jokatu zuten urte hartan Barajuen auzoan. Argazkian ageri dira txapelketako irabazleetako batzuk garaikurra hartzen. Hona hemen izenak, ezkerretik hasita: Ramon Altuna

*Maskaino* baserrikoa, Fernando Errasti, Jorge Errasti eta Aitor Aspe. Gazte mailan irabazi zuten Aitorrek eta Ramonek 79ko txapelketan. Errastitarrek, berriz, Barajuengo Iparralde tabernako semeak dira eta Iparraldeko saria ematen ari zaie pilotari gazteei. Gure berriemaileak esan digunez, Iparraldeko lan handia egin zuten pilotaren alde.

Eta, jakina, ezin ahaztu Barajuengo frontoia. Makina bat borroka egin ostean lortu zuten aramaioarrek Ibarran pilotalekua egitea, 1985. urtean, baina ordura arte Barajuengoak ondo asko bete zuten leku hori.

**Argazkia:** Barea Pilota Elkarte  
**Informazioa:** Enrike Aspe  
**Urtea:** 1979. urtea



## NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Lehengo  
Eskola  
Profesionala

**A**urreko baten, Cometal lantegiaren argazkia erakutsi genizuen, eta trenbide-errailak argi eta garbi ikusten ziren. Garai hartan, trenak Arrasate gurutzatzen zuten, baina 1968an ikusi genuen azkeneko tren herrian. Argazki hau Eskola Profesionalekoa da. Ordurako ez zegoen trenik, baina trenbidearen errailak oraindik argi eta garbi ikusten dira.



≈ 1970

Argazkiko motoa ez da ondo atzematen, baina autoa Seat Seiscientos bat da, garai hartan gehien ikusten zen autoetako bat.



2002

Eskola Profesionaleko eraikina ezkutuan geratu da. Gaur egun, eskualdeko ospitalea da, eta eraikina berritu eta handitu egin dute.



**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20



**Pando  
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak



**ARRASATE  
HOTELA**

Biteri, 1  
Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

# TXIKITXU dantza taldearen aldeko PINTXO EGUNA

ARRASATEN

2002 - 09 - 21

Arratsaldeko 19:00

Antolatzaileak



Zer jan, hura izan!



harategia  
Jose Ramón Otamendi

# Zure ametsetakoa trajea dugu...

Aukerarik zabalena  
festarako soineko,  
barruko moda  
eta osagarrietan.

Maritxu nora zoa  
...  
urrira Bartolo  
nara...  
iturrian zer dago  
ardotxo...  
biok edango de  
nahi degun guz



Maritxu Kaioi  
2002

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 79 12 62

# GIDA 2003 abian!

Aurten, telefono  
partikularrak aurkitu ahal  
izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...  
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu  
edo aldatu baduzu,  
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Gida Komertziala,  
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

**943 71 23 91**